

Oiasso Museoaren 2020ko kultur espedizioak

Oiasso Museoak, bere kultur egitarauaren barruan, 2020rako bidaia proposamenak aurkezten ditu: iraganeko kulturekin eta arkeologiarekin lotutako leku berriak ezagutzeko modu eksklusibo bat. Bi formatu (egun bateko joan-etorria eta nazioarteko bidaia), gure kultur espedizioetara biltzeko, arkeologoak eta gai bakoitzean adituak diren historialariak lagun.

Egun bateko joan etorria

Txango berdea Zarautz eta Getaria erromatarrak ikustera

2020ko martxoak 21, larunbata




Ingurugiroa eta turismo sostengagarriarekiko apostua egin duen Oiasso Museoak, bide batez garraibide publikoa ere bultzatu nahian, Euskotrena eta Zarautz-Getaria batzen dituen urbanoaren erabilpena sustatzea proposatzen du kostaldeko bi herrietako aztarna erromatarrak bisitatzeko aitzakiarekin.

Zarautz-Getaria inguruan topatu diren aurrehistoriako eta Antzinaroko arrastoek, bertan



kostaldeko asentamendu erromatar garrantzitsu bat zegoela adierazten dute. Aztarnategi arkeologiko nagusia Zarautzko Ezkildorrearen eta Santa Maria La Real elizaren barnean kokatzen da, Burdin Arotik gaur egundaino gizakiaren presentzia adierazten duten maila estratigrafikoak azalduz. Ezkildorrean bertan kokaturik dagoen Zarautzko Arte eta Historiaren Museoa bisitatuko dugu oraingo honetan, aipatutako arrastoak ikusiz.

Zarautzen bazkaldu ondoren, autobus urbanoan aldameneko Getarira joanen gara, Zarautz Jauregiaren zimenduetan agerturiko aztarna erromatarrek bisitatuz. Zarautz, Getaria, Zestoa, Zumaia eta Aiako udalerrien dermioetan topaturiko aurkikuntza solte eta aztarnategiek, nukleo nagusia kostaldean zuen bizileku baten testigu dira. K.o. I-V d.C. mendeetan dibertsifikatutako ekonomiadun asentamendu baten aurrean geundeke, nekazaritza eta abeltzaintza izaeradun aztarnategiak izanen genituzke Urteaga Zahar (Zumaia) eta Urezberoetako Kanposantu Zaharra (Aia), artzai munduarekin loturikoa Amaldako lezea (Zestoa), burdin lanketarekin zerikusia zuena Arbiunen (Zarautz) eta itsasoaren menpeko zirenak Zarautz eta Getarian. Berez, baliteke Getarian bertan arraina gazitzeko eta *garum*-a (erromatar munduan arrakasta handia izan zuen arraina oinarri zuen saltsa bat) egiteko tailerrak existitu izana, “*cetaria*” dermio latindarra oso loturik bait dago gisa honetako egiturei, Getaria lapurtarrean topaturiko arrastoak erakusten duten legez.



Prezioa: 37€

Prezioak barnean hartzen dituenak: aipatutako leku arkeologikoetako sarrera, bisita gidatuak langile espezializatuen eskutik, bazkaria Zarautzen eta bidaia aseguru. Euskotreneko tiketak eta Zarautz-Getaria bitarteko urbanoaren txartelak norberaren kontu izanen dira.

Egun bateko joan etorria: Eslabako Sta Kriz hiri baskoia eta Ledea (Nafarroa) 2020ko apirilak 25, larunbata



Ekialdeko Nafarroa Erdian kokatua, Eslavako Santa Kriz aztarnategi arkeologikoa zenbait egitura monumentalez osatua dago, non baskoi lurraldean kokatutako erromatar hiri baten foroa eta nekropolia nabarmentzen diren, Nemantourista edo Bituris civitatesekin identifika daitekeena, biak, Claudio Ptolomeok K.o. II. mendean aipatuak. Aztarnategira egingo dugun bisitaren osagarri, “Eslabako Santa Kriz, Erromaren islak baskoien lurraldean” erakusketa ikusiko dugu, Eslabako herrian bertan.



Erromatar hiria, erromatar aurreko baskoi kastro baten gainean eta Vareia (Logroño) eta Iacca (Jaca) lotzen zituen galtzadatik gertu dagoena, bere gorena K. o. I-III mendeetan bizi izan zuen. Bere egitura eder eta idazkun aberatsetan bertan bizi ziren *Corneliitarren* eta *Valeriitarren* familia boteretsuen izenak ikus daitezke. Beste kokagune asko bezala, IV. mendean bertako

populazioa murrizten joan zen, erabat abandonatua izan zelarik K. o. V. mendean.

Zangozan bazkaldu ondoren, aldameneko Ledeara joanen gara landa izaerako erromatar aztarnategi handi bat ezagutzeko, tradizionalki *villa* batekin identifikatua, zenbait ikertzailek zalantzan jarri duten hipotesia, galtzada erromatar batetik gertu dagoelako *mansio* bat dela defendatzen baitute, bidaiariek atseden har zezaketen zerbitzugune moduko bat. Kokalekua, Ilunberriko arroilaranzko bista pribilegiatuekin, 50 gela baino gehiago elkartzen diren bilbadura handi bat da, non jaur-tinduzko gelak, terma batzuk, urmael bat



eta ardoaren eta olioaren ekoizpenari lotutako egiturak nabarmentzen diren. K. o. IV. mendean bere gorenera iritsi ondoren hurrengo mendeko azken hamarkadetan hutsik gelditu zen.

Prezioa: 60€

Prezioak barnean hartzen dituenak: autobusa, aipatutako leku arkeologikoetako sarrera, bisita gidatuak langile espezializatuen eskutik, bazkaria Zangotzan eta bidaia aseguru.

Nazioarteko bidaia


Britania: zibilizazio erromatarren mugetan Maiatzak 29 – ekainak 4



Aldaketak egon daitezke xehetasunak zehaztu arte

Egungo Ingalaterra eta Gales K.o. I. mendearen erdialdean konkistatu eta erromatar munduan integratu ziren, inperioa osatzen zuten lurralde gehienak baino beranduago. Uharteak, bere osotasunean, *Britannia* bezala bataiatua izan zen, baina bere uharte izaera eta klima, erromatarren gusturako hotz eta hezeegia zena, izaera periferiko bat hartzea eragin zuen, baina zeharo interesgarria ikuspegi estrategiko-militar batetik eta esklaboen hornitzaile bezala zuen garrantziagatik.

Gure bidaia erromatarren munduko esparru militarari lotuta egonen da. Hala ere, Britania erromatarren ikuspegi osoagoa eskaintzeko asmoz, uhartearen hegoaldearen zati bat zeharkatuko dugu, non eguneroko bizimoduari lotuago dauden aztarnak nagusituko dira. Iritsi bezain laster, Londreseko harresi erromatarra eta mitreoa bisitatuko ditugu, antzinako *Londinium*-en lekuko leialak, baita Londongo Museoa ere, non garaiko hondakin ugari dauden. Erresuma Batuko hiriburua atzean utzi aurretik, British Museumera joateko aukera izango dugu, City-ko ezinbesteko gertakia. Bath hirira bidean, bere izena hartzen zituen erromatar termetatik datorrelarik, Readingetik igaroko gara, jatorri anglosaxoiko eta presentzia bikingo indartsuko enklabea.



Britaniako hegoaldea atzean utzita, iparraldera joango gara, Erromatar Inperioko defentsa sare ikusgarrienetako bat gertutik ezagutzeko: Adrianoren Harresia, ekialdetik mendebaldera doan egitura, uharteak bitan banatuz eta K.o. 122-132 urteen artean eraiki zena, Britania erromatarra iparraldera bizi ziren



piktoen erasoetatik salbu mantentzeko. Adriano enperadorearen lan faraonikora bidean, erromatar garaian Deva bezala ezagutzen zen Chester hiria bisitatuko dugu, presentzia militar handiko kokaleku harresitua, gaur egungo Irlandatik zetozen piraten erasoetatik eta iparraldeko frontetik gertu egoteagatik. Baina aisialdirako tokia ere bazen anfiteatro baten presentziak erakusten duen bezala.

Poliki-poliki harresira hurbiltzen goaz, gure bidaiaiko harribitxira eta baskoi eta

barduliar soldadu auxiliarren egonlekuetako bat. Handik 4 kilometro eskasera, Hexhamen geldituko gara, defentsa-lerroaren atzekaldean kokatutako erromatar gotorlekuetako bat ezagutzeko, Coria. Seigarren egunean, harresia eta bere kanpamentu garrantzitsuenetako bi ikusteko aukera izango dugu: Housesteads eta Vindolanda. Azken horretan aurkitu dira garaiko taulatxo ugari, goarnizioen korrespondentziaren zati bat jasotzen dutenak. Gure ibilbidea amaitzeko, Erromako Armadaren Museoa eta Housesteadseko laguntzaile indartsua bisitatuko ditugu.

Pertsona bakoitzeko prezioa gela bikoitzean: zehazteko oraindik

Banakako logelan dagoen pertsonako prezioa: zehazteko oraindik

Honako hauek barne hartzen ditu: 4* mailako hoteleko 8 gau, bainugela pribatua duten logeletan; ostatu- eta gosari-erregimena hoteletan; 5 bazkari 4. egunetik 6. egunera; Heathrow/Cityko aireportutik Londresko hotelera lekualdatzea; azken egunean Manchesterreko aireportura lekualdatzea; lanaldi osoko autobusa bidaia osoan; aipatutako museo eta aztarnategietara bisitak; bidaia-asegurua eta erreserba-ezeztapena duen aseguru.

Egun bateko joan etorria

Bordele-Astorga galtzada erromatarra jarraituz:

***Imus Pyreneus* (Donazaharre, Baxe Nafarroa), *Iturissa* (Aurizberri) eta Artziko *mansio*-a (Nafarroa)**

2020ko uztailaren 18a, larunbata

Imus Pyreneus (Donazaharre, Baxe Nafarroa) Iter-XXXIV Astorga-Bordele galtzadan zegoen *mansio* bat zen, bidaiariek atsedean har zezaketen garaiko zerbitzugune moduko bat. *Summus Pyreneusen* (Orreaga) mansiotik bost milia erromatarretara dago eta K. o. III. mendearen amaieran erromatar guarnizio militar bat izan zuen Pirinioetako bi isurialdeen arteko pasabide estrategikoaren segurtasuna bermatu ahal izateko. Kanpamentu militarren hondakinak eta herriko udaletxean dagoen museo txiki bat bisitatu ondoren, Aurizberrira abiatuko gara eta han duela urte gutxi aurkitutako miliario erromatarrak ikusi ahal izango ditugu.



Bazkalostean, Oihane Mendizabal arkeologo eta Aranzadiko kideak *Iturissako* aztarnategi arkeologikoa erakutsiko digu. Hiri hau zenbait autore grekoerromatarrek aipatzen dute, horien artean Plinio Nagusia (K. o. I. mendea). 90ko hamarkadan aurkitu eta industu zuten kokaguneko nekropolia. Azkeneko urteetan eguneroko bizimoduarekin lotutako hainbat eraikin eta aztarna



interesgarriren zimenduak aurkitu dituzte, baita Astorga-Bordele galtzadaren trazatu bat ere. Berriki egindako indusketek frogatu dutenez, uste zenaren kontra, galtzada hori Iruñerantz zihoan Arce haranetik, Donejakue bidea igarotzen den tokitik baino, azken hau mendebalderantz doa, Erro harana zeharkatuz eta Esteribarrera pasatuz. Oihane arkeologoarekin Artziko jaurerri zaharrean dagoen *mansio* bat

bisitatuko dugu, idatzizko iturrietan ezagutzen ez zen kokaleku bat, non duela bi urte termadun konplexu baten aztarnak agertu ziren.

Prezioa: 55 €

Honako hauek barne hartzen ditu: autobusez egindako bidaia, aipatutako leku arkeologikoetarako sarrerak, langile espezializatuen bisita gidatuak, Aurizberriko bazkaria eta bidaia-asegurua.

Nazioarteko bidaia


Atika eta Zikladak: Deloseko Ligaren bihotza

Irailak 29 – urriak 5



Aldaketak egon daitezke xehetasunak zehaztu arte

Beste behin ere, Oiasso Museoa Europako zibilizazioaren sehaskara bidaia antolatu du, Greziara. Oraingo honetan, penintsula atikoan, Eginan eta Ziklada uharte nagusiak izanen ditugu ardatz. K.a. V. mendean, greziarrek pertsiarren kontra borrokatu zuten Bigarren Gerra Medikoaren ondoren (K. a. 481-479), Atenasek, aliantza defentsibo bat egin nahi izan zuen ekialdekoen etorkizuneko erasoan aurrean Grezia defendatu ahal izateko. Aliantza honek, Egeo eta Asia Txikiko uharteetako hiri estatu gehienak batzera



iritsi zena, erdigunea Atenasen eta Atika zegoen penintsulan izan zuen, baita Zikladetan ere. Ligak, Delos uhartearen izena hartu zuen, hasiera batean honen santutegianaliatuen batzarra ezarri eta altxorra gordetzen zelarik. Hala ere, persiarren mehatxuaren aitzakian, Atenasek modu tiranikoan



zuzendu zuen aliantza bere helburu inperialistak lortzeko. Bere interesek Espartak zuzentzen zuen Peloponesoko Ligakoekin talka egin zuten. Bien artean soturiko K. a. 431 eta K. a. 404 bitartean iraun zuen gerra luze baten ondoren (Peloponesoko Gerra), Esparta garaile ateratu zen eta Deloseko Liga desegin zen. K.a. 377an, Atenasek Ligaren zati bat berreraiki ahal izan zuen Espartaren aurka babesteko, baina aurrekoa baino askoz xumeagoa zen.

Azkenik, aliantza hau K. a. 338an, Alexandro Handiaren aita zen Filipo II.a Mazedoniakoak atenastarrak Keroneako guduan garaitu zituenean behin betiko suntsitua izan zen.



Lehenik eta behin, Atenas hiria izango dugu mugitzeko erdigune, eta ondoren, ferryan, Zikladetako bi uharte nagusienetara joango gara, Mikonos eta Naxosera. Era askotako leku eta aztarnategiak bisitatuko ditugu. Geltokirik interesgarrienetako bat Maraton eta bere museo arkeologikoa izango dira, bertan K. a. 490. urtean Atenastar eta platenarren koalizio batek, persiarrak atzera bota zituen, Lehen Gerra Medikoa amaitutzat emanez. Onodan dagoen marmolezko presa ere nabarmentzekoa da, ikaragarria eta munduan bakarra. Oroposeko anfiteatroa eta Eginako hiri zaharra izango dira ikusiko ditugun beste eraikin eta egitura zibil batzuk. Tenplu eta santutegi ugari bisitatuko ditugu, horien artean Artemisa Brauronen, Deloseko santutegia, Dionisiorena Irian eta Demeterrena Ano Sagkrin, biak Naxosen. Apollonaseko Kouroa ere ikusiko dugu, zenbaitetan

Dionisoseko Kolosoa deitua, amaitu gabeko 10,7 metroko marmolezko estatua bat, Naxosen iparraldean dagoena.

Pertsona bakoitzeko prezioa gela bikoitzean: oraindik zehaztu gabe

Banakako logelan dagoen pertsonako prezioa: oraindik zehaztu gabe

Honako hauek barne hartzen ditu: oraindik zehaztu gabe

Egun bateko joan etorria
Saint-Sever (Landak)
2020ko azaroak 14



Saint-Sever Landetako hiri txiki bat da, Adour ibaiak zeharkatzen duena. Hiri barruan mosaiko aberatsak dituen *villa* erromatar bat aurkitu da. Tradizioaren arabera, erromatar inperioaren amaieran erromatar kanpamentu txiki bat zegoen, honen goarniziora San Severo erlijiosoa joan zelarik. Santuak nahiko arrakasta izan zuen eskualdean egin zituen ebanjelizatze lanetan, misio hau, bere biografoen arabera, zenbait mirariren segidak erraztu zuelarik. Pirata barbaro batzuk Adour ibaitik igo zirenean, San Severok Jainkoaren laguntza eskatu ahal izan zuen flota inbaditzailearen zati bat suntsituz, eta bizirik atera ziren piratak kanporatu egin behar izan zituzten, armadarekin borroka labur baten ondoren. Borrokan zehar ordea, Severo hil eta burua moztu zioten, baina bere sakrifizioak bereak salbatzeko balio izan zuen. Hil ondoren, oraindik beste mirakuluzko ekintza bat egin zuen, bere burua besapean hartuta, lurperatua izan nahi zuen tokiraino joan zen, non bere jarraitzaileek abadia eraiki zuten.



Erdi Aroan, Saint-Sever hiribildua, testuetan, *Wasconia* edo Gaskoiniako dukerriko "atea" edo "lehen enklabea" bezala hartua izan zen. Egungo abadia Gilleremo Santxo Gaskoiniako dukea Bordeleko kondea zenak sortu zuen, Santxo Abarka errege iruindarraren koinatua zelarik. Dukeak abadia Tallerreko guduan (982-983) bikingoei irabazi ondoren egin zuen promesari erantzunez egin omen zuen, borrokan zirela Severo santua zerutik jaitsi eta bere soldaduei adorea eman omen zien eta. Era berean, Irungo Santa Elena ermitan dukearen bi txanpon aurkitu zituzten, Bidasoaren bi aldean arteko harremanen arintasuna erakutsiz eta ermita hau Gipuzkoako zaharrenetako ba bezala kokatuz. Txango honetan, Frantziako hiribildu berean dagoen erromatar hiribildu bat bisitatuko dugu, baita *Cap de Gascogne* ("Gascuñako atea") arte eta historia museoa ere. Bertan, Erdi Aroko aztarna nabarmenenak eta Saint-Sever abadia ikusiko ditugu.

Prezioa: 80€

Honako hauek barne hartzen ditu: viaje en autobús, entradas a los lugares mencionados, visitas guiadas a cargo de personal especializado, comida en Saint-Sever y seguro de viaje.

Informazio gehiago:

Oiasso Museoa

943.63.93.53

actividades.oiasso@irun.org